

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Sestaoko Udala****Behin-behineko langilearen izendapena**

2019ko uztailaren 17an, Sestaoko Alkateak honako Dekretu hau eman du:

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko uztailaren 12ko ezohiko bileran hartutako erabakiaren arabera, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren 104.2 artikuluan xedatuta dagoena betetze aldera, artikuluko horrek udalburuari eskumena ematen dionez behin-behineko langileak izendatzeko eta kargutik kentzeko, honako hau

EBATZI DUT:

1. Aitor Alonso Belder jauna Sestaoko Udaleko behin-behineko langile izendatzea, erabateko prestasunarekin, komunikazio-arloko aholkulari gisa.
 2. Urtean 36.450 euroko ordainsaria esleitzen zaio. Ordainsari horrek urtero igoera izango du, Sestaoko Udaleko funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat kasu bakoitzean erabakitzen den ehunekoan.
 3. Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udaleko zerbitzu eta atalei jakinaraztea.
 4. Erabaki hau Udalaren Osoko Bilkurari jakinaraztea.
- Sestaon, 2019ko uztailaren 24an. — Alkatea, Josu Bergara Lopez